

Euskadiko gazteen panoramika: adierazle nagusien azterketa

Lehen atala: Euskadiko gazteen inguruko begirada soziodemografikoa

Gazteen Euskal Behatokia

2006. urtean Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteei buruzko adierazle nagusiak definitu, bildu eta aztertzeari ekin dio. Horren emaitzaz sortu den dokumentuak *Euskadiko gazteen panoramika: adierazle nagusien azterketa* du izena. Bertan, datu kuantitatiboen bitartez, Euskadiko gazteen errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoaren panorama zabala islatzen da.

Azterturiko adierazle estatistikoak bigarren mailako hainbat iturri ofizialetan oinarrituta landu dira. Adierazle estatistikoek askotariko gaiak jorratzen dituzte, bi arlo zabaletan banatuak: gazteei buruzko adierazle soziodemografikoak eta adierazle sozioekonomikoak.

Azterlanaren lehen atala *Euskadiko gazteen inguruko begirada soziodemografikoa* deitzen da eta atal horren emaitzei dagozkien, hain zuzen ere, gaurkoan aurkeztuko ditugun datuak.

Azterketa zenbait lurralde-mailaren inguruan garatuz doa: Euskadi Espainiako estatu osoarekin alderatuta; hiru lurralde historikoak elkarren artean alderatuta; eta Euskadiko hogeitaz eskualdeak elkarren artean alderatuta.

Era berean, eta informazio estatistikoa eskuragarri izan zaigun heinean, adierazle kuantitatibo horiek 1981etik 2005 arte izan duten bilakaera aztertu da.

Azterlanak, Euskadiko gazteen inguruko datu estatistiko eguneratuenak biltzeaz eta interpretatzeaz gain, fenomeno eta aztergaien aurkezpen teorikoa egiten du, horietako bakoitzari dagozkion esplikazio argigarriak eta azkeneko joerak azalduz. Kapitulu bakoitzaren amaieran ondorioak erakutsiko dira; bertan garatutako analisi prozesuaren emaitzarik esanguratsuenak jasota daude.

Laster bigarren atala emango dugu ezagutzera, datu sozioekonomikoei buruzkoa, alegia.

Azkenik, azterlana irakurtzera animatzen zaituztegu. Gizartearentzat eta Euskadiko gazteenganako interesa duten Euskadiko erakunde eta pertsonentzat baliagarri izango delakoan gaude.

Txostena zortzi kapitulutan egituraturik dago. Horietako bakoitzean askotariko aldagai soziodemografikoak aztertzen dira. Kapitulu bakoitzaren amaieran ondorioak jasotzen dira.

1. biztanleriaren bilakaera eta dentsitatea
2. egitura, sexuaren eta adin-talde handien arabera
3. 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
4. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera zibila
5. jaiotza-tasa eta ugalkortasuna
6. atzerriko biztanleria
7. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen osasuna
8. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hilkortasuna

Hona erabilitako iturriak:

- ⇒ Biztanleriaren zentsua: 1981/1991/1996/2001
- ⇒ Biztanleriaren udal errolda 1996
- ⇒ Biztanleen udal erroldaren berrikuntza 2005
- ⇒ Oinarrizko adierazle demografikoak, INE 1981-2004
- ⇒ Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
- ⇒ Osasun eta Kontsumo Ministerioa
- ⇒ HIESari buruzko Plan Nazionalaren Idazkaritzaren mendeko Carlos III Osasun Institutua
- ⇒ Biztanleriaren Mugimendu Naturala 1980/1981-2002/2003

Halaber, bibliografia zabala ere kontsultatu da; dokumentuaren amaieran jasota dago.

BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA DENTSITATEA

- 1981 eta 2005 urteen arteko dinamika demografikoa Euskadin **zero hazkundeari** dagokio.
- Hala ere, bilakaera demografikoan igoera txiki bat dago 2001-2005 aldian, atzerriko etorkinen kopuruaren gorakada dela medio (Euskadiko biztanleria % 2,03 igo da).
- Bilakaera demografikoa lurralde historikoen arabera aztertuz gero, Arabako biztanleria modu jarraituan igotzen ari dela nabarmentzen da; Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa, aldiz, pixkanaka jaisten ari dira.
- XXI. mendea hasitakoan, ordea, joera aldaketa igarri da Bizkaian eta Gipuzkoan, bertako demografiak gora egiten hasi diren aldetik: 2001etik 2005eko urtarrilera Bizkaiko biztanleria % 1,21 igo da eta Gipuzkoakoa % 2,25. Igoera horiek Arabakoa (% 4,74) baino askoz txikiagoak badira ere, azpimarratu behar da euskal kostaldeko lurralde historikoak berriro ere hazkundearen dinamikan sartu direla.

EGITURA, SEXUAREN ETA ADIN TALDE HANDIEN ARABERA

- Euskadik biztanleriaren **zahartze prozesua** bizi du ezinbestean, Espainiak bizi duena baino biziagoa, izatez. 1981ean EAEn 26,9 adineko zeuden 0 eta 19 urte bitarteko 100 pertsonako. 2005. urtea hasitakoan, 64 urtetik gorako 110,1 pertsona erregistratu dira 20 urtetik beherako 100 pertsonako. Horrek esan nahi du adineko jende gehiago dagoela jada 20 urtera arteko gazteak baino (ORDEZKAPEN TASA).
- Lurralde historikoei bagagozkio, gutxien zahartu den lurraldea Araba da (96,2 adineko 0 eta 19 urte bitarteko 100 pertsonako), atzetik Gipuzkoa (104,2) eta Bizkaia (117,8) datozkiola. Araban baino ez da adinekoen kohortea haur eta nerabeena baino txikiagoa, apur bat besterik ez bada ere.
- Gainera, biztanleriaren piramidea arian-arian "feminizatuz" doala hauteman daiteke, emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino handiagoa baita. 2005. urtearen hasieran EAEn 96 gizon daude 100 emakumeko eta, Espainian, 97,6.
- Azterlanaren arabera, pertsona nagusien kopuruaren gorakada nabari horrek, pentsioen sistema publikoaren oinarri den belaunaldi arteko elkartasuna auzitan jarri ez ezik, osasun sistemarengan ere eragina izango du, osasun arretaren ziozko gastuak igoaraziko baititu.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK

- 1981etik aurrera, gazteen portzentajeei dagokienez, **beheranzko bilakaera** (txikitzeko joera) bizi dugu. 1981an 524.334 gazte zeuden, hau da, lau biztanletatik bat gaztea zen (% 24,5). 2005ean 396.135 gazte daude, eta Euskadiko biztanle guztien seirena egiten dute (% 18,6).
- Gazteen taldearen beherakada Euskadin (% 24,4) bortitzagoa izan da Espainian baino (% 5,7ko hazkunde arina). Fenomeno horren arrazoiak, batik bat, jaiotza kopuruaren jaitsierari (Euskadin gogorragoa izan da) eta Espainiak gure erkidegoak baino atzerriko etorkin gehiago jasotzeari egotz dakioke. Aipatu beharra dago etorkinen artean gazte ugari dagoela, eta horri esker Espainiako biztanleriaren piramidea gaztetzen ari dela.
- Jaitsiera bereziki nabarmena izan da 15 eta 19 urte bitarteko artean (% -51,6). Izan ere, gazte horiek 1980ko hamarkadan ugalkortasun mailarik baxuenera —hau da, emakume ugalkor bakoitzak seme-alaba bakarra izatera— heldu zen gurasoen belaunaldiko seme-alabak dira.
- Beherakada hori hiru lurralde historikoetan antzeman daitekeen arren, eragina arinagoa izan da Araban.
- 15 eta 29 urte bitarteko kohorteko bi sexuetakoko pertsonen kopurua jaitea fenomeno orokorra izan da: eskualde-habitat desberdinetan gertatu da —landagune izaerakoetan nahiz hiri eta metropoli izaerakoetan—.
- Gazteen kopurua txikiagotzeak, epe luzera, hainbat ondorio sozioekonomiko ekarriko ditu berekin: ikasle kopurua jaitea eta, horren eraginez, hezkuntza sistema eraldatu behar izatea, adibidez testuinguru globalizatu berrira moldatzeko; biztanleria aktiboa gutxitzea, hartara lana lortzeko aukerak eta kolektibo horrek lan-merkatuan negoziatzeko duen botere soziala areagotuz; eta, litekeenez, seme-alabak dituzten familietako etxeetan izan ohi diren ondasun eta zerbitzuen kontsumoak gutxitzea.

- Era berean, antzemandako ugalkortasun-tasak aldatzen ez diren bitartean, biztanleriaren zahartze prozesua areagotu egingo da eta haurren taldeak urrituko, egungo gazteak bihar etziko gurasoak baitira. Egoera hau sorgin-gurpil hutsa da.

GAZTEEN EGOERA ZIBILA

- Euskadiko gazteen artean, **ezkongabe** egotea da aukera nagusiena. 1991etik 2001era doan hamarkadan ezkongabeen indizeak gora egin du (% 84,7tik % 89,9ra). Gauza bera gertatzen da Espainian, baina bertan igoera ez da Euskadikoa bezain handia izan (1991n ezkongabeak % 77,7 ziren eta, 2001ean, % 86,2).
- Joera hori gizonengan emakumeengan baino biziagoa dela dirudi, emakumeek, estatistikoki, ezkontzeko joera handiagoa baitute gazte diren artean. Horrela, bada, Euskadin, 2001ean, emakume ezkonduen indizea gizon ezkonduena halako bi izan da (% 13 eta % 6,5, hurrenez hurren).

JAIOITZA TASA ETA UGALKORTASUNA

- Aztertutako datuek aditzera ematen dutenez, jaiotza-tasa eta ugalkortasun-tasa **oso apalak** dira Euskadin (1,18 seme-alaba batez beste emakume bakoitzeko) eta, izatez, belaunaldien ugaltze-muga baino askoz beherago daude (ugaltze-muga emakume bakoitzeko 2,1 seme-alaba da). Espainian, emakume bakoitzak batez beste duen seme-alaba kopurua 1,33 da.
- Azpimarratu beharra dago 1990eko hamarkadaren amaiera aldera ugalkortasun-tasak apur bat gora egin duela hala Euskadin nola Espainian. Igoera hori, hein batean, atzerriko etorkinen ugalkortasun handiagoari lotu dakioke. Alderdi horretatik, urte berean, Euskadin bizirik jaio diren pertsona guztien % 6,6k ama atzerritarra dute (Espainian % 13,8 dira).
- Ama izateko batez besteko adina atzeratu egin da: 1981ean 28,6 urte zen eta 2004an 32,4.

ATZERRIKO BIZTANLERIA

- Euskadin 2005ean erroldatuta zeuden biztanle atzerritarrak **% 3,4** baino ez dira izan (72.894 pertsona), Espainiako estatuko beste erkidego batzuetan ez bezala. Espainiako estatuan atzerritarrak biztanleria osoaren % 8,5 dira.
- Euskadin erroldatuta dauden atzerritarren ia herena **gazteak dira (% 33,3)**. Gehienak, % 44,5, Latinamerikatik datoz; Afrikatik datozenak % 20,6 dira. Etorkinen artean gizonak gehiago dira emakumeak baino, 20 eta 24 urte bitartekoen adin-taldean izan ezik, bertan emakumeak nagusi baitira kopuru aldetik.
- Araban dago etorkinen portzentajerik altuena (% 5), etorkinen erdia Bizkaian bizi bada ere (% 49,7).

GAZTEEN OSASUNAREKIN ERLAZIONATUTAKO ALDERDIAK

- Gazteak 1992tik 2002ra gehiago joan izan dira **kontsulta medikoetara** (% 8ko igoera). Gorakada nagusiki gizonen artean igarri da, nahiz eta emakumeak urtean zehar kontsulta mediko gehiagotara joan, aurreko aldietan bezala. 2002an emakume gazteak 6,1 kontsultatara joan ziren batez beste eta, gizon gazteak, 4,9tara.
- Era berean, nerabeak medikuarengana sarriago joaten direla hauteman daiteke. 1992an gazteen artean, adin-tarte hori zen, izan ere, medikuarengana gutxien joaten zena; 2002an kontsulta medikoetara gehien joaten dena izatera pasatu da.
- 2002an gazteek gehien bisitatu duten espezialista mediku orokorra izan da (% 46,8).
- Euskadin burututako **legezko abortuen** tasak Espainiakoak baino apalagoak dira. Hala eta guztiz ere, bai EAEn, bai Espainiako estatuan, tasa hori areagotu egin da 2002tik 2004ra bitartean, bost urteka sailkaturiko hiru adin-tarteetan, bereziki 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean.
- Euskadin, droga-mendetasunen aurkako tratamenduak hasteari buruzko adierazlearen balioek beheranzko bilakaera izan dute 1993tik 2004ra 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean. Izan ere, 2004an bi sexuetako pertsonen 205,5 tratamendu hasi zituzten 100.000 biztanle gazteko; 1993an hasitakoak 263 izan ziren. Tratamendu horiek gehienbat gizonen hasten dituzte, eta arrazoirik ohikoena kokaina-mendetasuna da.
- 1993 eta 2005 urteen artean aitortu diren **HIES** kasuen kopuruak ere behera egin du. 2005ean 2,27 kasu aitortu ziren 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gazteko. Hala ere, tasa hori Espainiako estatukoa baino altuagoa da (1,12) hala nesken nola mutilen artean. Sexuari dagokionez, aipagarria da Euskadin, 2005ean, 15 eta 29 urte bitarteko kohortean, gizonen kasuak (2,9) emakumeenak (1,56) baino altuagoak direla.

- Azpimarratzekoa da Euskadin aitortu diren HIES kasuetan gaitza transmititzeko bide nagusiak harreman heterosexualak (% 66,7) eta bide parenteraletik kontsumitzen diren drogen erabilera (% 33,3) direla, Espainian ez bezala. Espainian aniztasun handiagoa hauteman daiteke transmisio-bideetan, bertan harreman homobisexualen ondoriozko kasuak erregistratu baitira (% 25,9).

HILKORTASUNA

- 1980-1981 eta 2003-2004 biurtekoetan gazteen hilkortasuna jaitsi egin da, bai Euskadin, bai Espainian. Beherakada biziagoa izan da Euskadiko gazteen artean Espainiako gazteen artean baino.
- Heriotza-kausa guztiek gehiago kolpatzen dituzte gizonezkoak emakumezkoak baino.
- Heriotza kausa nagusi guztiek behera egin dute. 1992-1996 alditik 2002-2003 biurtekora bitartean, drogen kontsumoaren zioz hildakoen kopurua jaitsi dela nabarmentzen da (100.000 gazteko, hildakoak 6 izatetik 1,6 izatera pasatu dira), bai eta HIESak eragindako heriotzena ere (16,4 hildakotik 0,8 hildakora).
- 2002-2003 biurtekoan motordun ibilgailuekin izandako istripuak heriotzen kausa nagusia izan dira (17 hildako 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gazteko); bigarren kausarekiko, hau da, suizidioekiko eta nork bere buruari egindako lesioekiko dagoen aldea bistakoa da (4 hildako 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gazteko).
- Hau izango litzateke gazteen hilkortasunaren profila Euskadin: gizonezkoa, 20 eta 24 urte bitartekoa eta motordun ibilgailu batekin izandako **trafiko-istripu baten zioz hildakoa**.

Bilbao, 2007ko otsailaren 2a

Gazteen Euskal Behatokia
www.gaztebehatokia.euskadi.net
gaztebehatokia@ej-gv.es